

Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

4526

AGINDUA, 1996ko irailaren 16koa, Osasun sailburuarena, zona farmazeutikoak bateratzeko prozedura ezartzeko dena.

Uztailaren 16ko 181/1996 Dekretuak, jendea atenditzeko farmazi bulegoen ordutegia zehazten duenak, zona farmazeutikoak bateratzeko posibilitatea ematen du, atentzio farmazeutikoa ematerakoan. Bateratzeko posibilitate horrek balio du larunbatetako arratsaldeko jorndarako, eguerdiko atsedenaldirako, arratsaldeko itxieraren eta urgentziako ordutegia irekitzearen bitarteko aldirako, jaiegunetarako eta urgentziako ordutegietarako. Dena dela, zona farmazeutikoak, bateratu ahal izateko, aipatutako Dekretuan ezartzen diren baldintzak bete behar dira eta Osasun-agintaritzaren baimena izan behar da.

Ondorioz, eta 181/1996 Dekretuak, jendea atenditzeko farmazi bulegoen ordutegia zehazten duenak, bere 19.3 atalean, ematen duen gaikuntzarekin bat etorririk,

XEDATU DUT:

1. atala. - 1.- Zona farmazeutikoak bateratzeko eskaerak, dagokion botikarien elkargo ofizialak formulatu behar ditu, irailaren 1a baino lehen.

2.- Botikarien elkargo ofizial bereko eremu geografikoari ez dagozkion zona farmazeutikoak bateratu nahi direnean, inplikaturik dauden elkargoek egingo dute eskaera.

2. atala. - 1.- Eskaerarekin batera bidali behar da bai jendea atenditzeko farmazi bulegoen ordutegia zehazten duen 181/1996 Dekretuaren 18.1 ataleko a), b) eta c) idaztatietan aipatutako dokumentazioa, baita egokitzat jotzen den bestelako dokumentazio osagarria ere.

2.- Era berean, kreditatu behar da bateratze-eskaerak ukitutako zona farmazeutikoetan dauden farmazi bulegoetako botikari titular guztiek bateratze-proposamenari buruzko alegazioak egin ahal izan dituztela.

3. atala. - 1.- 181/1996 Dekretuaren 18.1 ataleko c) idaztatiak aipatzen duen denbora-kreditazioa egiteko, dagokion botikarien elkargoak egokitzat jotzen duen prozedura erabiliko da.

2.- Osasun Sailak bidezko jotzen duen beste edozein jarduera egin dezake, botikarien elkargo ofizialak bidalitako datuak egiaztatzeko.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

4526

ORDEN de 16 de septiembre de 1996, del Consejero de Sanidad, por la que se establece el procedimiento de unificación de zonas farmacéuticas.

El Decreto 181/1996, de 16 de julio, por el que se determina el horario de atención al público de las oficinas de farmacia, establece la posibilidad de que durante la jornada vespertina de los sábados, las franjas horarias comprensivas del descanso del mediodía y del espacio comprendido entre el cierre vespertino y el comienzo del horario de urgencia, los días festivos y durante el horario de urgencia, las zonas farmacéuticas puedan unificarse para prestar atención farmacéutica siempre que, cumpliendo los requisitos establecidos en el citado Decreto, sean autorizadas por la Autoridad Sanitaria.

En su virtud, y de conformidad con la habilitación contenida en el artículo 19.3 del Decreto 181/1996, por el que se determina el horario de atención al público de las oficinas de farmacia

DISPONGO:

Artículo 1. - 1.- Las solicitudes de unificación de zonas farmacéuticas serán formuladas por el Colegio Oficial de Farmacéuticos correspondiente con anterioridad al primero de septiembre.

2.- Cuando la unificación pretenda agrupar zonas farmacéuticas no pertenecientes al ámbito geográfico de un sólo Colegio Oficial de Farmacéuticos, la solicitud deberá formularse conjuntamente por los Colegios afectados.

Artículo 2. - 1.- La solicitud irá acompañada de la documentación a que se refieren los apartados a), b) y c) del artículo 18.1 del Decreto 181/1996, por el que se determina el horario de atención al público de las oficinas de farmacia, así como de aquella otra documentación complementaria que consideren oportuna.

2.- Así mismo, deberá constar acreditación de que todos los farmacéuticos titulares de oficinas de farmacia ubicadas en zonas farmacéuticas afectadas por la solicitud de unificación han podido formular sus alegaciones sobre la propuesta de unificación.

Artículo 3. - 1.- La acreditación de los tiempos a que se refiere el apartado c) del artículo 18.1 del Decreto 181/1996, podrá realizarse por el procedimiento que estime oportuno el correspondiente Colegio de Farmacéuticos.

2.- El Departamento de Sanidad podrá efectuar cuantas actuaciones considere oportunas con objeto de comprobar los datos aportados por el Colegio Oficial de Farmacéuticos.

4. *atala.*– 181/1996 Dekretuaren 18.2 atalean aurrikusitako salbuespena dela-eta, bateratze-eskaerak zona farmazeutiko baten zati bat hartzen duenean, botikarien elkargo ofizialak kreditatu behar du, batetik, aipatutako ataleko 1. idazatiak dioen dokumentazioa, eta bestetik, zona farmazeutiko osoa ez den esparru geografikoa erabiltzeak atentzio farmazeutikoaren kalitatezko hobakuntza dakarrela, eta gainera, ukitutako zona farmazeutikoetako pertsoneri ez diela inongo kasuan arazorik sortuko.

5. *atala.*– 1.– Botikarien elkargo ofizialek emandako dokumentazioa lehen mailako atentzioko osasun eskualdeetako kudeatzaileei bidaliko zaie. Urgentzia medikoen atentzioari dagokionez, 10 eguneko epea dute kudeatzaileok eskatutako bateratzeagatik gerta daitezkeen ondorioei buruzko txostena bidaltzeko, 181/1996 Dekretuaren 18.1 ataleko e) idazatian ezarritakoari jarraituz.

2.– Era berean, Osasun Administrazioak elkargoek bidalitako dokumentazioa pasatuko die bateratzeak ukitutako udalei, eta udal horiek 10 eguneko epea dute egokitzen jotzen dituzten oharrak egiteko.

6. *atala.*– Aseguramendu eta Kontratazioarako zuzendariari dagokio zona farmazeutikoak bateratzeko baimen-eskaerei buruzko ebazpenak ematea.

7. *atala.*– Emandako baimenak urtebete egongo dira indarrean, eta automatikoki luzatuko dira epe berdinetan, salbu eta urte bakoitzeko uztailaren 1a baino lehen borikarien elkargo ofizialek edo Osasun Administrazioak berak indarrean egote hori aldatu behar dela justifikatzen badu.

Aurkeztutako justifikazioaren ondorioz baimena luzatzen ez bada, zona farmazeutikoak bateratzeko eskaera berria formulatu beharkoda, hala badagokio, agindu honetan aurrikusten den moduan.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

1997 urterako zona farmazeutikoak bateratzeko eskaerak, ordutegi-proposamenarekin batera formulatuko dira eta 181/1996 Dekretuan horretarako ezarri diren epeen barruan.

1997 urteko aldibaterako tramitazioan, ez da beharrezkoa izango kasu guztietan bidaltzea, ez Lehen Mailako Atentzioko Eskualdeko kudeatzaileak bidali behar duen txostena, ez bateratzeak ukitutako udal guztiei bidaltzen zaien gaztigua.

1997 urterako baimenduko diren zona farmazeutikoen bateratzeak ez dira automatikoki hurrengo urteetarako luzatuko; beraz, 1988 eta hurrengo urteetarako eskaerak, agindu honetan aurrikusten den arabera tramitatu beharko dira.

Artículo 4.– Cuando, en aplicación de la excepción prevista en el artículo 18.2 del Decreto 181/1996, la solicitud de unificación afecte a parte de una zona farmacéutica, además de la documentación a que se refiere el apartado 1 de dicho artículo, el Colegio Oficial de Farmacéuticos deberá aportar documentación acreditativa de que la utilización de un ámbito geográfico distinto al de zonas farmacéuticas enteras mejoraría la calidad de la atención farmacéutica y, en todo caso, que no supondría un detrimento de la misma para los habitantes de las zonas farmacéuticas afectadas.

Artículo 5.– 1.– De la documentación aportada por los Colegios Oficiales de Farmacéuticos se dará traslado a los Gerentes de las Comarcas Sanitarias de Atención Primaria para que, en el plazo de 10 días, emitan el informe sobre las posibles repercusiones que de la unificación solicitada puedan resultar en cuanto a la atención de las urgencias médicas, de conformidad con lo dispuesto en el apartado e) del artículo 18.1 del Decreto 181/1996.

2.– Así mismo la Administración Sanitaria dará traslado a los Ayuntamientos afectados por la unificación, de la documentación aportada por los Colegios para que, en el plazo de 10 días, formulen cuantas observaciones consideren oportunas.

Artículo 6.– Corresponderá al Director de Aseguramiento y Contratación Sanitaria dictar las resoluciones procedentes sobre las solicitudes de autorización de unificación de zonas farmacéuticas.

Artículo 7.– Las autorizaciones concedidas para la unificación de zonas farmacéuticas tendrán una vigencia anual y se prorrogarán automáticamente por periodos iguales, salvo que con anterioridad al primero de julio de cada año se justifique la conveniencia de su modificación por parte de los Colegios Oficiales de Farmacéuticos o por la propia Administración Sanitaria.

En los supuestos en que como consecuencia de la justificación aportada no se prorrogue la vigencia de la autorización, se procederá a formular, en su caso, una nueva solicitud de unificación de zonas farmacéuticas en los términos previstos en esta Orden

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las solicitudes de unificación de zonas farmacéuticas para el año 1997 se formularán conjuntamente con la propuesta horaria y dentro de los plazos establecidos para ello en el Decreto 181/1996.

En la tramitación transitoria para el año 1997 no será preceptivo, en todos los casos, el informe que debe emitir el Gerente de la Comarca de Atención Primaria, ni la comunicación a todos los ayuntamientos afectados por la unificación.

Las unificaciones de zonas farmacéuticas que, en su caso, se autoricen para el año 1997 no se prorrogarán automáticamente para los años sucesivos, debiendo tramitarse, conforme a lo previsto en esta Orden, las solicitudes para el año 1988 y siguientes.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko irailaren 16a.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN SAILA (Osakidetza)

4527

878/1996 ERABAKIA, abuztuaren 29koa, Osakidetza-ko zuzendari nagusiarena, Gipuzkoako Osasun Barrutiko Bidasoa Eskualdeko Ospitaleko kudeaketa ekonomikorako zuzendari lanpostua betetzeko Fernando Martín Navascues jauna izendatzen duena.

Gipuzkoako Osasun Barrutiko Bidasoa Eskualdeko Ospitaleko kudeaketa ekonomikorako zuzendari lanpostua aukerako izendapenez betetzeko deialdia ikusi da. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen 1996ko maiatzaren 20ko 602/1996 Erabakiaren bitartez egin zen eta EHAAko 119. zenbakian argitaratu zen, 1996ko ekainaren 21ekoan alegia.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko izangai bakarrak agertu dituen agiriak aztertu dira, bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Fernando Martín Navascues jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko dohain egokiak dituela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

ERABAKI DU:

Lehenengoa.— Fernando Martín Navascues jauna Gipuzkoako Osasun Barrutiko Bidasoa Eskualdeko Ospitaleko kudeaketa ekonomikorako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.— Zuzendari berria lanpostuaz jabetzen den unean hartuko du indarra izendapen honek.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de septiembre de 1996.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD (Servicio vasco de salud)

4527

RESOLUCIÓN 878/1996, 29 de agosto, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra a D. Fernando Martín Navascues para desempeñar el puesto de Director de Gestión Económica del Hospital Comarcal del Bidasoa, Área Sanitaria de Gipuzkoa.

Vista la convocatoria para cubrir, por el sistema de libre designación, el puesto de Director de Gestión Económica del Hospital Comarcal del Bidasoa, Área Sanitaria de Gipuzkoa, publicada en el BOPV n.º 119, de 21 de junio de 1996, mediante Resolución n.º 602/1996, de 20 de mayo, de esta Dirección General.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por el único aspirante al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

Considerando que a la vista de la documentación presentada por D. Fernando Martín Navascues se adecua al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección General

RESUELVE:

Primero.— Nombrar a D. Fernando Martín Navascues Director de Gestión Económica del Hospital Comarcal del Bidasoa, Área Sanitaria de Gipuzkoa.

Segundo.— El presente nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos desde la fecha de la toma de posesión.